



Jazarpen sexualaren eta moralaren aurreko prebentzioko neurriak eta jokabidea

Helburua eta aurkezpena: lanean portaera etiko-sozialak hobetu, langileen bizi-kalitatea hobetu ahal izateko. Gaur egungo prozedura azken urteetan identifikatzen joan diren beharren emaitza da. 2007. urtean jarduteko prozedura zehaztu zen laneko jazarpen moral eta sexualeko kasuen aurrean. Horrekin batera, landu beharreko printzipioak eta balioak integratzen hasi ziren, eta onargarriak ez diren egoerak identifikatzen; horien zerrenda bat osatu zen. 2013an prozesua bultzatu zen, barne indarkeriarik batere ez onartzeko politika onetsiz, eta politika horri kaltea eragiten dion edozein gertaera erregistratzeko langileek duten erantzukizuna finkatuta. Urteak joan ahala, prozedura egokitzeko beharra ikusi zen. Hori guztia aurreko urteetan zehar aurkitutako beharren arabera, eta sindikatuekin adostuta.



Egindako hobekuntzak: : lehenagoko prozedurarekiko, aldatu, argitu eta gutxitu egiten ditu jarraibideak, erantzuleak eta epeak. Guztiek ezagutzen dute, eta eskura dago extranet-aren bidez. Jazarpen-arris-

kuaren pertzepzioa aldatzea eragin du prozesuak, bai langileen artean (nahitaez erregistratzea) eta bai buruen artean (aholkularitza behar dute jazarpen-kasu bat gertatu baino lehen).

Bereizgarriak: Intranetetik eskura daitekeen dokumentazioa. Jarduteko epe laburrak. Hobetutako prozedura.

Prozesuaren deskribapena: 1- langileak gertaerak erregistratzeko orria beteko du eta funtzio publikoko zerbitzuan (FPZ) entregatuko du. 2- FPZak prebentzioko ordezkariari emango die gertatutakoaren berri, eta 3 eguneko epean gehienez jakinaraziko dio ustezko jazarpena dagoen zuzendaritzari. Zuzendaritzak edo FPZak kautela-neurriak har ditzake, hala erabakiz gero. 3- saileko zuzendaritzak, 2 eguneko epean gehienez, pertsona bat izendatuko du arduradun. 4- pertsona horrek 5 eguneko epean ekingo dio lanari, neurriak hartuz eta egindakoa txosten batean idatziz. 5- FPZak jarraipena egingo du. Baldin eta bideratu ez bada, 2 eguneko epean esku hartzeko talde bat sortuko da. Horrek kasua aztertuko du, gehienez 7 eguneko epean aplikatzeko neurriak proposatuko ditu, eta jarraipena egingo du. Esku hartzeko taldea: saileko zuzendaritza, FPZko teknikaria, LAP teknikaria eta bi ordezkari. Bi alditan aktibatu da (jazarpen morala eta sexuala). Bi kasuetan protokoloa abiarazi zuten, esku hartzeko talde bat osatzen zen bitartean. Taldeak bilera egin zuen erasandako pertsonarekin, ustezko jazarlearekin, haren kideekin eta erantzule zuzenekin. Hartutako neurriak antolaketza-mailakoak izan dira, harreman pertsonalei eta medikuntza-arloari dagozkionak.

Lortutako emaitzak: jazarpen-arriskuaren pertzepzioaren aldaketa, bai langileen artean (nahitaez erregistratzea) eta bai buruen artean (aholkularitza behar dute jazarpen kasu bat gertatu baino lehen). Alde batetik, prozesua sistematizatu baino lehen, agresioa izan daitekeen kasuaren salaketa langilearekin berarekin hitz eginez hasten zen. Era horretako kontsulta asko izaten ziren, eta oso gutxi egiten zuten aurrrera. Gaur egunean, langileek egindako salaketa gutxi izaten dira, bai na egiten direnak askoz ere kontzienteagoak eta irmoagoak dira. Beste alde batetik, aholkularitza eskatu duten buruzagiak gero eta gehiago dira, euren sailean eraso egoera bat gertatu aurretik esku hartu ahal izateko. Prebentzioari dagokionez, sendotu egin da.